

eu

## Gipuzkoako mapak *offline*, gailu mugikorretan

b5m mapak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen Gipuzkoako mapak, gailu mugikorretan *offline* ikus daitezke; hau da, Interneteko konexiorik gabe.

Horretarako, MOBAC (*Mobile Atlas Creator*) aplikazioa erabil daiteke mapa horiek deskargatzeko. Aplikazio hori kode irekiko programa bat da, eta *offline* mapak sortzen ditu GPS gailuen eta sakelako telefonoen aplikazioetan erabiltzeko; hortaz, Gipuzkoako mapak ikusteko aukera ematen du GPS kokapena daukaten gailu mugikorretan. Doan da, eta erabili ahal da Windows, Linux eta Mac OS X sistemetan. MOBAC eskuratzeko, eta ikusteko eskuko zein aplikazio onartzen dituen, jo ezazu bere webgunera:


<http://mobac.sourceforge.net>

Ondorengo argibideetan erakutsiko dugu nola egiten den atlas bat (mapa multzo bat) b5m mapekin, MOBAC erabilita. Adibide gisa, arestian aipatutako webgunean azaltzen diren aplikazioen artean, OruxMaps aukeratuko dugu (<http://www.oruxmaps.com>), eta Gipuzkoako mapak bertan ikusiko ditugu *offline*. OruxMaps da Android gailuetan instalatzen den aplikazio bat (*app*), eta kasu hauetan erabiltzen da: aire zabalean norberaren kokapena ikusteko, gailu mugikorren GPSa erabilita; eta ibilbide bat jarraitzeko edo grabatzeko. Oso erabilia da gure artean, eta noizean behin ikastaroren bat antolatzen da aplikazioa erabiltzen trebatzeko (adibidez, 2015ko udaberrian Bagera elkarteak ikastaro bat antolatu zuen OruxMaps aplikazioari buruz: <http://zuzeu.eus/euskal-herria/mugikorretarako-gps-oruxmaps-aplikazioari-buruzko-ikastaroa>).

b5m mapak zure gailu mugikorrean deskargatzeko, eta OruxMaps aplikazioan ikusteko, jarraitu argibide hauek:


1. Instalatu MOBAC zure ordenagailuan, haren webgunetik eskuratuta.
2. Deskargatu [b5m\\_mapa.xml](#) eta [b5m\\_orto.xml](#) fitxategiak, eta gorde MOBACeko "mapsouces" karpetan. Fitxategi horiek b5m-ko mapak eta ortofotoak ikusteko aukera emango dute.

3. Ireki MOBAC aplikazioa eta sakatu **Debug > Refresh custom map sources**.
4. Aukeratu, **Map Source** atalean, **b5m mapa** edo **b5m orto** (azaltzen ez badira, berrabiarazi MOBAC).
5. Kokatu Gipuzkoako mapan, MOBAC aplikazioak dituen tresnak erabilia, eta egin lauki bat mapa deskargatu nahi duzun eremuan (ikusi ondorengo irudia). MOBACek eremu hori moztuko du eta haren datuak erabiliko ditu atlasa sortzeko.



6. Aukeratu deskargatu behar dituzun zoom mailak (**Zoom Levels**). Kontuan hartu 19. mailaraino irits zaitezkeela.
7. Egin atlas bat (**Atlas Content > New**), eta aukeratu **Orux Maps Sqlite** formatua. Jarri iezaiozu nahi duzun izena eta sakatu **Add selection** botoia.
8. Sortu atlasa, **Create Atlas** botoia sakatuta.

9. Kopiatu atlasa zure gailu mugikorrean, **oruxmaps/mapfiles** kokapenean, erabiltzeko *offline* mapa gisa.
10. Ireki OruxMaps aplikazioa eta aukeratu **Abrir Mapa > OFFLINE > Atlasen izena**. Horrela b5m-ko mapa izango duzu ikusgai zure gailu mugikorrean (ikusgai beheko irudia).



Gogoratu, MOBAC aplikazioaren bidez, gailu mugikorrek dauzkaten app askorentzat mapak sor ditzakezula.

Argibide gehiago, hemen:

[http://mobac.sourceforge.net/wiki/index.php/Custom\\_XML\\_Map\\_Sources](http://mobac.sourceforge.net/wiki/index.php/Custom_XML_Map_Sources)  
<http://www.oruxmaps.com/oruxmapsmanual.pdf>

es

## Los mapas de Gipuzkoa *offline*, en dispositivos móviles

Los mapas del b5m, ofrecidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa, se pueden ver *offline* en dispositivos móviles; esto es, sin conexión a Internet.

Para descargar esos mapas, se puede usar el programa MOBAC (*Mobile Atlas Creator*). Es un programa de código abierto, y crea mapas para su uso *offline* en aplicaciones de dispositivos GPS y de teléfonos móviles; por lo tanto ofrece la posibilidad de ver los mapas de Gipuzkoa en dispositivos móviles que tengan localización GPS. Es un programa gratuito, y se puede usar en los sistemas Windows, Linux y MacOS X. Puedes obtener MOBAC en su página web: <http://mobac.sourceforge.net>


En las siguientes instrucciones mostraremos cómo se hace un atlas (un conjunto de mapas) con los mapas del b5m, usando MOBAC. Como ejemplo, entre las aplicaciones que aparecen en la web antes señalada, escogeremos OruxMaps(<http://www.oruxmaps.com>), donde veremos los mapas de Gipuzkoa *offline*. OruxMaps es una aplicación (*app*) que se instala en dispositivos Android, y se emplea en estos casos: para ver nuestra ubicación al aire libre, usando el GPS del móvil; y para seguir o grabar un recorrido. Es una aplicación muy usada en nuestro entorno, y alguna vez se ha organizado un cursillo para enseñar su uso (por ejemplo, en la primavera de 2015 la asociación Bagera organizó un curso de OruxMaps: <http://zuzeu.eus/euskal-herria/mugikorretarako-gps-oruxmaps-aplikazioari-buruzko-ikastaroa>).

Para descargar los mapas del b5m en tu dispositivo móvil, y verlos con la aplicación OruxMaps, sigue estas indicaciones:

1. Instala MOBAC en tu ordenador, descargándolo de su sitio web.
2. Descarga los ficheros [b5m\\_mapa.xml](#) y [b5m\\_orto.xml](#), y guárdalos en la carpeta "mapsources" de MOBAC. Esos ficheros permitirán la visualización de los mapas y ortofotos del b5m.
3. Abre el programa MOBAC y pulsa en **Debug > Refresh custom map sources**.

4. Escoge, en la sección **Map Source**, **b5m mapa** o **b5m orto** (si no aparecen, reinicia MOBAC).

5. Ubícate en el mapa de Gipuzkoa, usando las herramientas de MOBAC, y haz un recuadro del lugar en el que te quieras descargar el mapa (mira la imagen de abajo). MOBAC cortará esa zona y usará esos datos para hacer el atlas.



6. Escoge los niveles de zoom que quieras descargar (**Zoom Levels**). Ten en cuenta que puedes llegar hasta el nivel 19.

7. Haz un atlas nuevo (**Atlas Content > New**), y escoge el formato **Orux Maps Sqlite**. Ponle el nombre que quieras y pulsa el botón **Add selection**.

8. Crea el atlas, pulsando el botón **Create Atlas**.

9. Copia el Atlas en tu dispositivo móvil, en la ubicación **oruxmaps/mapfiles**, para usarlo como mapa *offline*.
10. Abre la aplicación OruxMaps y escoge **Abrir Mapa > OFFLINE > Nombre del atlas**. De esta manera podrás ver el mapa del b5m en tu móvil (mira la imagen inferior).



Recuerda que, mediante el programa MOBAC, puedes crear mapas que sean compatibles con muchas app de dispositivos móviles.

Más información, aquí:

[http://mobac.sourceforge.net/wiki/index.php/Custom\\_XML\\_Map\\_Sources](http://mobac.sourceforge.net/wiki/index.php/Custom_XML_Map_Sources)  
<http://www.oruxmaps.com/oruxmapsmanual.pdf>